

HITZAURREA

Agur t`erdi:

Hiru urte bete ditu Zizurkilgo Udaleko Kultura eta Euskara sailak antolatzen duen ipuin lehiaketak. Lehiaketa horretan parte hartu duten ikastetxeetako arduradun eta batez ere ipuinak sortzen, taxutzen eta lantzen saiatu diren guztien fruitu da liburu hau. Teodoro Hernandorena III Ipuin Lehiaketa du izenburua; aurretik argitaratutako beste biren segida da beraz. 10 ipuin bildu ditugu liburu honetan, adin eta maila desberdinetan landu eta idatziak, lehenengo orrian duzu zehaztasun gehiago.

Haur eta gazteen artean sormena eta hizkuntzarekiko ardura sustatzea izan da gure helburua hasieratik eta Teodoro Hernandorena bertsozale ospetsuaren izena erabiltzen dugu bere ohorez. Ezin dugu ahaztu Zizurkildar horrek euskararen eta bertsolaritzaren alde egin zuen lana; errepublika garaian Eusko Gaztediko lehendakari aukeratu zuten, gerra hasi baino lehen Gipuzko Buru Batzarreko buru izendatu zuten eta erbestean bertsolaritzaren alde egin zuen lana handia izan zen.

Gure saiakerak ematen dituen emaitzekin gustura gaude, gero eta gehiago dira ipuinak idaztera ausartzen diren herritar eta inguruko bizilagunak, gero eta ipuin gehiago iristen zaizkigu. Lehenengo urtean 89 lan iritsi ziren, iaz 166 eta aurten 183. Datorrenean ziur gaude aurtengo marka hautsiko dugula. Halaber, aipagarria da epaimahaikideen lana eta borondatea, ipuin kopuru horrek lan handia eskatzen baitu. Aurten Patri Urkizu eta Juan Kruz Igerabide idazleak izan ditugu epaimahaikide.

Horrek guztiak ematen digun adorea izugarria da, jadanik ekin diogu datorren urtekoa prestatzeari; ohi den legez abenduan egingo dugu sari banaketa. Has zaitez lehenbailehen burua hausten eta ekariezaguzu zure lana gustura hartuko dugu eta.

Liburu honetan dituzu epaimahaiak saritu dituen lanak. Hartu eskuarte, murgildu bertan eta ziur gaude gozatuko duzula. Gipuzkoako Liburutegietara eta inguruko eskoletara bidaliko dugu eta jakina Zizurkilgo Liburutegian era aurki dezakezu.

Gure eskerrik beroena ipuinen egile, ikastetxeetako arduradun, epaimahaiko partaide...guztiei, egitasmo hau gauzatzen laguntzeagatik. Liburuxka honek zure barrua astintzea eta zugaran idazteko grina piztea da gure desiorik handiena. Hala izan dadila!

M^a Angeles Lazkano Larrañaga
Zizurkilgo Alkatea

